



# LANEKO SEGURTASUNEN ETA OSASUNEKO POLITIKA

*Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelerazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.*

**AURKIBIDEA**

- 1. LANEKO SEGURTASUNENAREN ETA OSASUNAREN IKUSPEGIA..... 3
- 2. HELBURUA..... 3
- 3. IRISMENA..... 3
- 4. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK ..... 3
- 5. JARRAIPENA ETA KONTROLA ..... 4
- 6. ONARPENA ETA HEDAPENA..... 4



## **1. LANEKO SEGURTASUNEN ETA OSASUNAREN IKUSPEGIA**

CAF Taldearen Plan Estrategikoaren (hemendik aurrera, "CAF") baitan, "enpresako kulturaren laneko arriskuen prebentzioa txertatzeko" ekimena gehitu da. Proiektu horren baitan, CAFentzako Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Ikuspegia eraiki eta idatzi da. Honako hau da, hain zuzen ere, hitzez hitz:

*"CAFen Zuzendaritzaren eta aginte-lerroaren lidergoaren bidez eta pertsonen partaidetzarekin prebentzio-politika positiboa eraikiko dugu, lantoki seguru eta osasungarriak mantenduta. Horietan, pertsonak autozaintzaren, gainerakoen eta lan-ingurunearen zainketaren erakusgarri izango dira".*

## **2. HELBURUA**

Bere jarduera garatzeak pertsonen segurtasun eta osasunerako arriskuak sor ditzakeela jakinda, CAFek segurtasuna eraikiko duten ekintzak garatuko ditu, lan-arriskuen aurrean pertsonak, bai langileak eta baita azpikontratak ere, babesten lagunduko duten neurriak bultzatuta.

Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Politikaren helburu nagusia da segurtasuna eta osasuna bermatzea, gure interes-taldeei CAFeko Jasangarritasuneko Politika baitan gordetako Pertsonetikiko gure Konpromisoaren berri emanda. Horren arabera, beren betebeharrak profesionala CAFen garatzen duten pertsona guztien artean prebentzio-kultura bultzatuta lan-arriskuak desagerrarazteko edo gutxitzeko beharrezko bitartekoak erabiltzeko konpromisoa hartu du CAFek bere gain.

Hori dela eta, informazio- eta komunikazio-eredu gardenaren bidez, segurtasuna eta osasuna babestearekin lotuta Pertsonetikiko eta, oro har, Interes

Taldeekiko bere gain hartutako konpromisoari erantzuna ematen die CAFek.

## **3. IRISMENA**

Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Politika honek CAF osatzen duten sozietate guztiengan du irismena Merkataritza Kodearen 42. artikulua xedatutakoa betez CAFek lan egiten duen jurisdikzio guztietan. Era berean, Taldeko enplegatu guztientzat da aplikagarria.

CAFek ez diren partaidetutako sozietateen kasuan, Sozietatea saiaturiko da mugak, printzipioak eta irizpideak Politika honen bidez ezarritakoekiko koherenteak izaten, kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez.

## **4. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK**

Konpromisoak abian jartzeko, CAFek oinarrizko jardura-printzipio hauek hartuko ditu kontuan:

- 1. Prebentzio Kultura Positiboa eraikitzea**  
Zuzendaritzaren eta aginte-lerroaren lidergoaren bidez, eta pertsonen kontsultarekin eta partaidetzarekin.
- 2. Lanean Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemak ezartzea edo sendotzea**, etengabeko hobekuntzara bideratuta, prebentzio-kultura bere jardura guztietan barneratzen laguntzeko.
- 3. Lan egiten duen herrialdeetan indarrean dagoen laneko arriskuen prebentzio arloko araudia errespetatzea** eta, ahal den neurrian, araudi berriaren aplikazioari aurre hartzea eta laneko segurtasun eta osasun arloan taldeak bere borondatez bere gain hartutako konpromisoak betetzea.

4. Egiten dituzten jardueretan lan-baldintzak modu jarraituan identifikatzea eta ebaluatzea, lan-ingurune seguruak eta osasungarriak sortzeko.
5. Laneko segurtasun eta osasun arloko jardueren eta emaitzen inguruko informazio argia ematea, pertsonetikiko eta, oro har, interes-taldeekiko komunikazioa errazteko bide egokiak mantenduta.

## **5. JARRAIPENA ETA KONTROLA**

Batzorde Exekutiboari dagokio Politika hau betetzen dela zaintzea, zuzendaritza sinatzailearen gidaritzapean. Horretarako, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Politika Garatzeko Eskuliburu barruan jasotako beharrezko kontroleko beharrezko mekanismoak ezarriko dira.

## **6. ONARPENA ETA HEDAPENA**

Politika hau 2021/03/24(e)an onartu du Giza Baliabideen Zuzendaritza Korporatiboak eta data horretatik aurrera sartu da indarrean.

Hartzaileei eta interesdunei Politikaren edukia erraztu ahal izateko, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko Politika hori Sozietatearen.

Data: 05/05/2022

Sinadura: Gorka Zabalegi Aginaga

Giza Baliabideetako Zuzendaritza Korporatiboa

<b>HISTORIKOA</b>	<b>DATA</b>
Hasierako edizioa.	2021-03
2. puntua eguneratzea.	2022-05

